

IÑAKI IRAZABALBEITIA FERNÁNDEZ

JOKOAK ETA BIDEOAK EDO TELEBISTAREN AKABERA

Plazan paratu eta euskararen erabilera-ren puntua bota digu gai-jartzaileak. Eskuak patrikan sartu, buruari bira pare bat eman eta 'alu horrek trantze ederrean jarri gatziztik!' pentsatzen duzu. Izan ere, euskararen erabilera milioi bat dolarreko galdera da; erraz egitekoa eta nekeza erantzutekoa.

2017an Hermeserako idatzi nuen artikuluan erabileraren auzia hizpide izan nuen eta apur bat erlatibizatu nuen uda hartan bertan atzen Inkesta Soziolinguistikoaren datuek euskaldungoan eragindako egon eza¹. Eginiko analisi sotilaren laburpen moduan hauxe eskribitu nuen:

'Bi kasu konkretu hauek aipatu ditut adierazteko erabileraren ahultzearen auzia poliedrikoa izateaz gain, tokian tokiko ezaugarri propioak dituela. Tentatuta egoten gara errezeta bakarra eta uniformatzaileak emateko auziak bideratzeko garaian. Euskararen erabilera indartzeko estrategia

poliedrikoak baliatu beharko ditugu, ertz desberdin askotatik eragin beharko diogu eta tokian tokiko hurbilketa politika orokorragoen osagai ezinbesteko izango da'.

Gogoeta horren ondoren definitu nituen artikulua hartan landu nahi nituen bi ertzak: mezuak eta ekintzak bat etorri beharra eta gizarte-liderren jarrera linguistikoen garrantzia.

Administrazioa eta lider politikoak izan nituen jo-puntuaz. Oraingoan gazteen mundura egingo dut salto. Urrik gabeko piszinara ez ote dudana egingo!

Euskaltzaindiak eta Ezkerraberi fundazioak joan den ekainean antolatu zuten 'Euskara batua eta tokian tokiko hizkerak: korapiloak eta erronkak'2 jardunaldian parte hartu zuten hizlariak hitzun gazteak mintzagai izan zituzten maiz. Gazte-hizkerak, adierazkortasuna, erregistroak, euskara formala eta ez-formala eta antzeko beste kontzeptu batzuk hitzetik hortzera baliatu zituzten hizlariak. Kezka zegoen hizkuntzaren sena ez ote garen galtzen ari eta plastikozko hizkera sortzen. Gazte jendea kezka-iturri nagusia.

Bada kezkatzeko arazoa. Gazte batzuek euskaraz egiteko duten zailtasuna agerikoa da eta

2. Ikus: http://ezkerraberi.eus/eu/Ekitaldiak/20180601/Euskara_batua_eta_tokian_tokiko_erabilera:_korapiloak_eta_erronkak
Laburpen-bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=axxIYMMIGmM>
Jardunaldi osoa: <https://www.youtube.com/watch?v=uPGe-ZaeuHY>

1. 'Mezuez eta Lidergoez', *Hermes*, 57. Zenbakia, 2017ko azaroa, 96. Or.

ebidente euskarazko jardun egokia dutenen artean hizkera laua eta kolorega dela maiz askotan. Hala ere, esplikazioa badu, aintzat hartzen badugu, 34 urte baino gutxiago duten egungo euskaldunen erdiak baino gehiagok eskolan ikasi duela euskaraz. Euskara eskolan ikasi izana, etxeko hizkuntza gaztelania izatea eta, are gehiago ingurugiro sozio-linguistiko erdaldunean bizi badira, neke komunikatiboa dakarkielako hiztun gazteei dudarik ez dago eta, bereziki, egoera ez-formaletan. Aisialdia eta lagunartea dira egoera horietako bi. Gazte horiek tresna komunikatiboen mentsa dute; nor-nori-nork paradigma egoki menpera dezakete, baina 'jno te empanas!' modukoak nola esan ez dakite edota neska edo mutil laguna gorteatzen totalka ibiltzen dira euskaraz.

Fenomeno horren gibelean faktore ugari daude. Neronek bi azpimarratuko nituzke: erreferentzien falta eta ekosistema linguistikoaren ahuldadea. Ingurune soziolinguistiko euskaldunean bizi diren gazteek badituzte egoera ez-formaletik kanpo hizkuntza erreferentziak, euskara kalean dagoelako, jendeak egunerokotasunean euskaraz diharduelako. Azpeitian, Leitzaan edo Markinan bizi den gazteak nondik edan badu: iturri oparoa gainera. Alabaina, Barakaldon, Donostian edo Tafallan bizi denak iturririk ez du eta, iturririk badu, mehea da. Lehenean kasuan jatorrerian jaustea izan daiteke arriskua, baina hori beste artikulua baterako haria izango litzateke.

Erreferentzien eza ekosistema linguistikoaren ahuldadearekin zuzenean lotuta dago. Ekosistema indartzeko erreferentziak indartzea ezinbestekoa da. Gazte batek bere etxetik edo ingurutik euskaraz eremu ez-formalean aritzeko erreferentziarik ez badu, euskararekin duen harreman ia bakarra eskola bada, bestelako erreferentzia batzuk eman beharko zaizkio. Beste ekosistema bat eskaini beharko zaio non euskaraz ari daitekeen eta eroso sentitu. Fernadoren egia esango dut: aisialdia da gakoa. Gazteek gozatzen eta kontsumitzen dutena euskaraz ere behar dute. Ongi pasatzearekin lotutako inputak euskaraz behar dituzte. Tamalez, salbuespen txalogarri batzuk at, input gehienak gaztelaniaz dira eta gero eta gehiago ingelesez.

Gazteen aisialdiaren eskaintzan huts egin dugu, nire irudiako. Hartu gaurko gazteen aisialdi-kontsumoaren bi alor inportanteenak: ikus-entzunezkoak eta bideojokoak.

Gaurko gazteek apenas kontsumitzen dute telebistarak³ edo ia kasik ez dira zinema-aretoetara joaten. Internet bidez asetzen dituzte beren beharrak. Serieak ikusten dituzte edo YouTubeko bideoak. Datu bi: Netflix-ek Internet-trafikoaren % 15a okupatzen du eta YouTubek % 11,4⁴. Zein da euskarazko eskaintza plataforma horietan? Ardurarik hartu al dugu youtuber euskaldunak sustatzeko? Zenbat serie edo film sortu dira euskaraz gazteei begira? Zenbat serie bikoiztu dira euskarara?⁵ Non biltzen da modu eskuragarrian egin den apurra? Alor horretan EITBk egin duen akats historikoa euskarazko fikzioa baztertuz, izan jatorrizkoa edo bikoiztua, barkaezina da.

Bideo-jokoak beste mundu bat dira. Daitort arrotza zaidala osorik, inoiz ez didala atentziorik deitu, baina nire bi semeak ikusten ditut mundu horretaz gozatzen; ingelesez bidenabar. Estatuan populazioaren % 40a bideo-jokoetan aritzen da arrunki eta EAEn 18 milioi euro gastatu ziren bideo-jokoetan 2016an Jondolar Sotak emaniko datuei jaramon eginez⁶. Euskadi Encounter eta Gipuzkoa Encounter topaketek milaka lagun biltzen dituzte. Euskarak ba al du tokirik? Zenbatekoa? Alor horretan ekimen txalogarri batzuk badira, Game Erauntsia ekimena esaterako (<https://gamerauntsia.eus>) edo ekimen horrek Azkue fundazioarekin batera sortutako Jokoteknia jardunaldia. Alabaina, iruditzen zait, ur-tantta baino ez dela bestelako hizkuntzen ozeanoan.

Bukatzeko atzen gogoeta. Munduko youtuber onenak, euskarazko serie bikainak eta harapatzen zaituzten bideo-jokoak izan ditzakegu eta horien kontsumoa hutsaren hurrengo izatea. Sustapenean huts egiten badugu, publiko objektiboarengana iristen ez bagara eta gizarteratzean nahikoa inbertitzen ez badugu, jai dugu! Horretan ere desafio galanta! Ea saltzen ikasten dugu!

3. Kirol-emankizunak dirateke salbuespena.

4. <https://mashable.com/article/netflix-15-percent-worlds-internet-traffic/?europa=true>

5. Badakit batzuentzako anatema dela, baina euskararen normalizazioan eta gurea bezalako egoera batean, kanpoko ikus-entzunezko produkzioa azpituatzea mesederik ez duela egiten uste dut. Gure gazteek ingelese hobetzeko balio dezake, baina euskaraz aiseago egiteko ez. Bikoizketa da horetarako tresna, horrek eman baititzake hizkuntza-erreferentziak eremu ez-formaletik kanpo. Nola ikasi genuen gure belaunaldikook Madrigo txelia? Irrati eta telebista bidez. *Merrilren* bikoizketan darabiltzaten 'ez dut mola' moduko makuluak eta klitreak eskaini behar zaizkio egungo gazte urbano euskaldunei. Euskadi Gazteak ere egiteko handia izango luke gazteen lagunarteko hizkera aberasten, baina, nago, uko egin diola zeregin horri.

6. Jondalar Sota, 'De la pelota al teclado. La nueva tendencia en la vida cotidiana', Galde, 22, 2018ko udazkena. <http://www.galde.eu/eu/de-la-pelota-al-teclado/>